

Pentsioen murrizketarik EZ

U-27

GREBA OROKORRA

ESKURA DEZAGUN KALEAN PARLAMENTUAN KENTZEN DIGUTENA

Zapateroren Gobernuak urtarrilaren 28an onartuko duen Pentsioen Erreformatarako Lege Proiektua hamaika faltsukeriatan sostengatzen da. Erreforma honek erretiro adina 65 urtetik 67 urtera atzeratuko du, erretiroa kalkulatzeko denboraldia 15 urtekoa izan beharrean 20 edo 25 urtekoa izango da. Uzteko ikerketa zientifikoek bermaturiko erreformatarako argudio hauek langile eta hiritarren kontzientzia manipulatu egin nahi ditu, ikara eta intsolidaritatea suspertuz, honako lau helburu lortzeko:

1. Pentsio publikoak murriztea eta txartzea, bai zenbatekoetan bai hauek lortzeko baldintzetan.
1. Egungo pentsio sistema publikoaren mamia den banaketaren funtsa urardotzea, kapitalizazio eredu batera pixkanaka-pixkanaka hurbilduz.
2. Pentsio pribatuei bidea irekitzen jarraitzea; banku, aurrezki kutxa eta aseguru-etxeentzako negoziotzarraren eremu horri.
3. Enpresa-kotizazioak gutxitzeko baldintzak sortzea; kapitalak soldaten parte handiago baten bereganatzea ekarriko du honek.

PENTSION ERREFORMAREN AMARRUAK

Gezurra esaten digute diotenean bizitza-itxaropenak eta aurreikuspen demografikoek ekidizina egiten dutela erretiro-adinaren luzatzea; pasiboekiko aktiboen kopuruak pentsioen murrizketa dakarkigula zein erretiro-adinaren luzatzea; pentsioen gastua BPG-Barne Produktu Gordinean bizpahiru hamarkadetan jasanezina izango dela. Ikus ditzagun banan-banan.

Bizi-itxaropenak (heriotza-adinaren batz bestekoa) gorantz egin du, heriotza-tasa jaitzi egin delako haurtxaro eta adoleszentzian.

Honez gain, bizi-itxaropena ez da berbera klase sozialen arabera. Gure gizartean gaizkien kokaturiko pertsonak, pertsona aberatsak baino, batz beste, hamar urte gutxiago bizi dira. Erretiro-adina luzatzeak baliabide gutxiago eta lan txarragoak dituzten pertsonak gehiago kaltetuko ditu.

10 urte edo gehiagorako ikerketa demografikoak ez dira oso sinesgarriak, ez dituztelako zuzen baloratzen pentsioen sistemetan eragiten dituzten funtsezko hainbat aldagai, emakume

eta immigranteen lan merkatuan sartzea kasu.

Persona pasiboekiko aktiboen zenbatekoaren gutxiagotzeak mendekotasun demografikoarekin baino mendekotasun ekonomikoarekin zerikusiago du. Bermea, enpleguaren, produktibitatearen eta bategiterako gizarte zerbitzuen ugaritze eta hobetzean datza, honek bidea emango liguke emakumeen bizitza laboralaren desberdintasunari aurre egiteko.

Pentsioetarako erabiltzen den BPG-ren portzentajeak ez digu ezer adierazten. Espainiako erresuman, duela 40 urte, pentsioetarako BPG-ren %4a erabiltzen zen (2007an %8,4a) eta jende guztia egun baino okorregi bizi zen. Euroaren Europa Batasuneko 17 herriek, batz beste, %10,2a erabiltzen dute; honek ez du esan nahi herri horiek baliabide gutxiago dutenik, dena BPG-ren tamainuaren baitan baitago. 2060. urtean BPG-ren %15,1a erabiliko balitz ere, egun baino bikoitza izango genuke pentsioak ez diren beharretara zuzentzeko, BPG 2,25az biderkatuko litzatekeelako.

ESKrentzat oso garrantzitsua da langileriak ideiak garbi eta argi izatea ez daitezen engaina pentsio sistema publikoa suntzitzeko erabiltzen ari direntamainako gezur neoliberaleraz. Eta baitere, pentsio sistema publiko hobeago eta justuago lortzeko proposamen aldatiboak garatu.

GURE ALTERNATIBAK

ESK-k epe laburrerako defendatzen dituen erreformak honakoak dira:

- Bizimodu duina bermatuko duen zenbatekora arte igotzea LaGS-Lanbide arteko Gutxieneko Soldata.
- Gizarte Segurantzari egiten zaizkion kotizazioen goi-mugak kentzea.
- Ez da LaGS-ren azpitik pentsiorik izango.
- Pentsioen balore handitzea soldaten batz besteko igoeraren arabera emango da.
- Erretiro aurreratuen pisua ugazaberiaren bizkarretik emango da, erretiro hauek enpleguaren amortizazioa edo plantillen gaztetzea helburu dutenean.
- Pentsio sistema pribatuei eutsi behar diegu, pentsio sistema publiko on batekin bateragaitzak direlako.

Epe erdi batera begira, justizia eta kohesio soziala lortzeko helburuarekin, beti aldakor eta kapitalaren intesen mende den lan merkaturuan sartzean oinarritzen den pentsio sistema baino eraginkorrago den Hiritarren Oinarrizko Errenta bat ezartzea, gure gizartearen pertsonen existentzia bermatzeko nahikoa izango den diru-sarrera bat ezartzea hain zuzen ere. Hau ESKrentzat eraginkorrago da.

Helburu hau lortzen ez den bitartean eta pentsioak bizimodu duin bat bermatzeko bitartekoak direnez lanik egin ezin denean, uste dugu Estatuari exiji behar diogula behar den finantziak lortu behar duela (aurrekontu publikoekin betetzen diren alferreko eta kaltegarri diren hainbat gastuekin bezala) pentsio publiko guztien kargu egiteko. .

MOBILIZAZIOA DA BIDE BAKARRA

Erreforma hau aurrera eramaten badute, gure eskubideetan aresti eta ondoren bat emango da. Honek berehalako erantzun erabatekoa exijitzen du, Gobernuak Lege Proiektua publikoa egin arte itxaron gabe.

Erreformaren epeak eztabaida dezakeela baina ez erreformaren helburuak ez, behin eta berriro plazaratu duen Gobernuarekin gizarte elkarrizketaren ameskeriak arnasa ematen dio Gobernuari eta langileriarengan nahasketa sortzen du.

Testuinguru honetan, mobilizatorako data baten zehaztapena, urtarrilaren 27koa hain zuzen, albiste pozgarria da, nahiz eta ESKri gehiago atsegin erakunde sindikal guztien borondate bateratua baten ondorio izan balitz.

Erreforma baten aurkako atzerako kontaktan aurkitzen gara. Eta Frantziako esperientzian ikusi dugun bezala, gizarte mobilizatorik zabalena eskatuko du. Parlamentu-izapide luzean zehar luzatu beharreko urratsen lehena izango da urtarrilaren 27ko mobilizazioa. Langileriaren interesak defendatzen dituela dioen sindikatu batek ezin dio bizkarrik eman mobilizazio horri.



Guztiarengatik, U-27an: Greba Orokorra. Aitzakiarik gabe